

Asisko gutuna

2020ko urtarrila

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

135. zenbakia

Frantzisko Aita santuak izadiarekiko arduraz ohartu eta esnatu nahi izan gaitu kristauok, Jainkoarekiko begirunea izaditik igaro behar duela konturatu araziz. Eta horretarako Asisko Frantziskoren kantikaz baliatu da: “Laudato si”.

Zain dezagun izadia, zain dezagun Jainkoak halako maitasunez egina.

Gogoetarako gaia

Kontsumo arduratsua

Gure kontsumo-ohiturak etengabe aldatzen joan dira urte gutxitan. Zorrozki beharrezkoa bakarrik erostetik, pasatu gara publizitateak sortutako beharrak asetzeko erostera, edo depresioaren kontrako terapia bezala erostera, edo salerosketa jarduera ekonomiko soil bezala ulertzera, etab. Baina, aspalditik zenbaitzuk ohartzen ari zitzaizkigun fase batean sartzen ari gara, hau da, kontsumo era Lurra-ekin, gure etxearekin, dugun erantzukizun eta ardurarekin lotzen. Kontsumitzen duguna eta nola egiten dugun ez da soilik eremu pertsonaleko kontua; gizateria osoarekiko solidaritate kontua baizik. Gure bizimodua aldatzen ari da –jada benetan aldatu du—gure planetaren ziklo naturala.

Kontsumo erantzukizun hau humanitate guztiari dagokio, baina batez ere guri, gizateriaren baliabide eta energia gehien agortzen dugunoi daramakigun bizimoduaren erruz. Onartu beharra daukagu, nahiz eta kosta, ezinezkoa dela gure bizi moldea gizateria oso-

ra zabaltzea. Adituek diotenez bi Lur planeta beharko genituzke horretarako.

Gure kontsumoak beste gizakiekiko gure elkartasuna edo elkartasun-eza agertzen du. Ez gaurkoekiko soilik, baita ondorengoekiko ere. Bizirik irauteko kontsumitu beharra daukagu, baina arduraz. Eta arduratsu izateko gure beharrak kontrolatu beharra daukagu, ikusiz zeintzuk diren egiaz ezinbestekoak eta zeintzuk horrenbeste ez direnak; erosten dugunaz gehiago informatzea eskatzen du -bere jatorria, lantzen duten pertsonen lan-egoerak, naturari egiten dion eragina-; eta baztertzen dugunari ematen diogun tratamendua hobetzea.

Kontua, gutxiago erostea baino, zer eta zertarako erosten den jakitea da, dagoeneko ez delako ekintza indibidual soil, baizik eta ekintza horrek nik besteengatik egiten dudana adierazten didalako, bereziki gutxien duten eta etorkizunean etorriko direnengatik.

Bibliako pasarteak: 1Tm 6,6-9.11

Bai, irabazi handia du erlijioak, baina bakoitza duenarekin konformatuz gero; ez dugu ezer ekarri mundu honetara eta ezin izango dugu ezer atera ere. Beraz, zer jan eta zer jantzi edukiz gero, aski dugu. Aberats izan nahi dutenak tentaldiaren sarean eta gizakia hondatzen eta galtzen duten grina zoro eta kaltegarri askotan erortzen dira. Zuk, ordea, Jainkoaren gizon horrek, ihes egizu hauetatik guztietatik, eta saia zaitez justizian, jainkozaletasunean, sinesmeanean, maitasunean, eroapenean eta otzantasunean.

Frantziskotar espiritualtasuna

Ez zuten ezere jabetzarik. Ematen zizkieten liburu eta gainerako gauzak guztientzat izaten ziren, apostoluek gorde eta transmititutako bizieraren arabera. Bakarka eta elkartean egiaz pobreak zirenez, eskuzabal eta eman zale ziren Jainkoagatik ematen zizkieten gauza guztietan. Jainkoaren maitasunagatik gogo onez banatzen zizkieten eskatzen zieten, eta batez ere pobreei, beraiei emandako limosnak. Bidez zihoazela, pobreak Jainkoaren maitasunagatik eskatzen aurkitzen zituztenean, emateko beste ezer ez bazuten, beren jantzien zatiren bat ematen zieten, zirtzilak ziren arren, Ebanjelioko hura betetzeko: *Eskatzen dizun edonori, eman* (Lk 6,30).

Oso pozik bizi ziren pobretasunean, ez baitzuten irrikatzen aberastasunik, baizik eta munduzaleek maite dituzten ondasunak eta gauza iragankor guztiak arbuiatu egiten zituzten. Etengabe pozten ziren Jaunagan, eta ez zuten aurkitzen beren artean, ez beren baitan atsekabetzeko arrazoirik. Zenbat eta aldenduagoak munduko gutziazatik, orduan eta elkartuagoak zeuden Jainkoarekin. Ebanjelioaren bidetik aurrera eginez beti. (cf. HL 43-45)

Otoitza

Jainko guztiahalduna,
unibertso guztian eta zure izakirik txikienean
presente zaudena,
Zuk, dagoen guztia zure samurtasunarekin
inguratzen duzunak,
isur ezazu guregan zure maitasunaren indarra
bitzita eta edertasuna zain ditzagun.
Bakez blai egin gaitzazu
senide bezala bizi gaitzen inor mindu gabe.
Behartsuen Jainko, lagun iezaguzu
zure begientzat hain kutunak diren
mundu honetako baztertuak eta ahaztuak
erreskatatzen.
Senda itzazu gure bizitzak,

Munduaren babesle gaitzen eta
ez harrapariak,
edertasuna erein dezagun eta ez poluzioa
eta suntsiketa.
Uki itzazu txiroen eta Lurraren kontura
etekina soilik bilatzen dutenen bihotzak.
Gauza bakoitzaren balioa aurkitzen
irakats iezaguzu, txunditurik begiratzen,
zure amaigabeko argiranzko bidean
izaki guztiei sakonki elkarturik gaudela
onartzen.
Eskerrik asko gurekin zaudelako egunero.
Adore eman iezaguzu, mesedez,
justizia, maitasuna eta bakearen aldeko
gure borrokan.

Gutuneko azken hitzak

“Planeta honetan bizi gara halako batean joateko beste bat izango bagenu bezala”. (T. Swearingen)


2020ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak

1 Lk 2, 16-21	8 Mk 6, 34-44	15 Mk 1, 29-39	22 Mk 3, 1-6	29 Mk 4, 1-20
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 6, 45-52	16 Mk 1, 40-45	23 Mk 3, 7-12	30 Mk 4, 21-25
3. Jn 1, 29-34	10 Lk 4, 14-22	17 Mk 2, 1-12	24 Mk 16, 15-18	31 Mk 4, 26-34
4 Jn 1, 35-42	11 Lk 5, 12-16	18 Mk 2, 13-17	25 Mk 3, 20-21	
5 Jn 1, 1-5.9-14	12 Mt 3, 13-17	19 Jn 1, 29-34	26 Mt 4, 12-23	
6 Mt 2, 1-12	13 Mk 1, 14-20	20 Mk 2, 18-22	27 Mk 3, 22-30	
7 Mt 4, 12-17.23-25	14 Mk 1, 21-28	21 Mk 2, 23-28	28 Mk 3, 31-35	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko otoitza
30ean izango da